

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak aurreikusitakoa eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko Bizkaiko 10/1989 Foru Arauak ezarritakoaren arabera eskatuko du zerga hori, ordenantza fiskal honetan xedatutakoa kontuan izanda.

II. IZAERA ETA ZERGA EGITATEA

2. artikulua

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga zeharkako zerga da, eta udalerri honetan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak eratzen du haren zergapeko egitatea, baldin eta horretarako obra- edo hirigintza-lizentzia lortu beharra badago, lizentzia hori aurretik eskuratu ala ez, edo ardura-adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztea eskatzen bada, betiere, lizentzia hori ematea udal honi badagokio.

3. artikulua

Besteak beste, honako hauek dira zergapeko egintzak:

- 1.- Mota guztietako eraikin edo instalazio berriak egiteko obrak.
- 2.- Mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Egitura ukitzen duten aldaketa edo berrikuntza obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 4.- Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.
- 5.- Eraikinaren barruko antolamendua aldatzen duten obrak, edozein dela ere eraikinaren erabilera.
- 6.- Behin behineko izaeraz egin behar diren obrak.

7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8.- Lur mugimenduak, esate baterako, lur erauzketak, hondaketak eta betelanak, ez bada horrelako beharrak urbanizazio eta eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehaztuta eta programatuta daudela.

9.- Eraikuntzen erauzketa, hur-hurreko aurriaren deklarazioa daukatenak izan ezik.

10.- Lurpeko instalazioak: aparkalekuak, industria, merkataritza edo lanbide jardueretakoak, zerbitzu publikoenak edo lur-azpiari ematen zaion beste edozein erabilerakoak.

11.- Propaganda kartelak herri bideetatik ikusteko eran ipintzea.

12.- Ahalmen ekonomikoa agerian ipintzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar dutenean.

13- Obra txikiak.

4. artikulua

Ez dira egongo zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, beti ere, obraren jabea udala bera bada.

III- SALBUESPENAK

5. artikulua

1.- Zerga ordaindu beharretik salbuetsita daude estatuaren, autonomia erkidegoen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo toki-erakundeen jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, zerga horri lotuta egonda, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanle-guneen saneamendu eta hauen hondakin-uren saneamendurako izango direnean, nahiz eta euren kudeaketa erakunde autonomoek egiten dutenean, bai inbertsio berrikoak zein mantentze lanak izan.

2.- Eliza Katolikoa, Estatuak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunean ezarritako moduan (2001eko ekainaren 5eko Aginduaren arabera; haren bidez argitzen da zelan agertzen den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Estatu espainiarrak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an eginiko Itunaren IV. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran).

IV- SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun moduan, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe direnean, beharra egiten den higiezinaren jabea izan edo ez.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabetzat hartuko da behar hauen gastuak edo kostuak jasaten dituenak.

Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeko subjektu pasiboak izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenak edo aitoren erantzuleak zein aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak eta eraikuntzak, instalazioak eta obrak egiten dituztenak.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

V- ZERGA OINARRIA

7. artikulua

Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da zerga oinarria, hau da, lan horiek egiteko kostua da.

Ez dira sartuko zerga oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko zergarik, ez tasarik, ez prezio publikorik, ez eraikuntza, instalazioa edo obrarekin zerikusia daukan ondarearen gainerako toki prestaziorik, ez profesionalen ogibide-saririk, ez kontratistaren industria mozkinik, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako ezelako kontzepturik.

Udal lizentzia barik egindako eraikuntza, instalazio eta obren kasuan, zerga oinarria udal administrazioak ezarritakoa izango da.

VI- ZERGA KUOTA

8. artikulua

Zerga kuota zerga oinarriari **%5eko karga tasa** aplikatuta ateratzen dena da.

9. artikulua

1.- Aurreko artikuluaaren arabera zerga kuotan udalak hobari hauek ezartzen ditu:

a.- Zerga kuotaren % **50eko hobia** fatxadak margotzearen, lan horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Obra lizentzia berean fatxadak margotzearekin zerikusirik ez daukaten beste lan batzuk badaude, hobia-aren oinarritzat margotze lanen kostua baino ez da hartuko

b.- Zerga kuotaren % **50eko hobia** alde zaharreko Birgaitze Osoko Aldeetan egiten diren eraikinen birgaitze obretan, lan horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Hobari eskaria obraren lizentziaren eskabidearekin batera egin behar da. Bermeoko Udalak luzatutako Birgaitze Osoko Aldeko lanak direla egiaztatzeko egiaztageria aurkeztu behar da, zuzenean hobia behin-behineko kitapenean aplikatzeko.

c.- Zerga kuotaren %**90ko hobia**, abeltzaintza arloko jardura daukaten baserriak birgaitzeko edo instalazioetarako lanetan, obra horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Hobari hau aplikatzeko sustatzaileak derrigorrez izan beharko du bere jardura nagusia nekazaritzakoa dela egiaztatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko titulua. Horrez gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiaztageria, ustiapenen erroldan sartuta dagoela ziurtatzeko.
- b) Gizarte Segurantzaren egiaztageria, onuraduna Nekazal Araubide Berezian (nekazal jardura) alta emanda dagoela egiaztatzeko.

d.- Zerga honen kuota % **50aren hobia** izango dute mugitzeko %65aren ezintasuna daukaten elbarrituak heltzeko eta bertan bizitzeko baldintzak hobetzeko higiezinaren elementu pribatiboetan egindako obrek, etxebizitza egokitzeko, bertan bizi direlako normalean elbarrituak eta euren beharrianetara irisgarritasuna hobetu eta etxea egokitu beharra dagoelako.

Hobia aplikatzeko subjektu pasiboak daukan ezintasun gradua ziurtatu egin beharko da, dagokion aginteak emandako agiri bidez.

e.- Zerga honen kuota % **30aren hobia** izango dute etxebizitzetako jabe elkarrekin igogailua lehen aldiz jartzeko edo kolarrean irisgarritasuna hobetzeko eskatutako obretan, beti ere, erakinean mugitzeko % 65aren ezintasuna daukan elbarrituren bat dagoenean.

Hobari hau aplikatzeko subjektu pasiboak dagokion aginteak emandako elbarrituaren ezintasun graduaren ziurtagiria eta auzokidea dela ziurtatzeko errolda agiria aurkeztu beharko ditu.

f.- Zerga kuotaren %50eko hobaria herri barruko merkataritza-lokaletan jarduera berriak irekitzeagatik egiten diren obretan, irekitako jarduera berrien establezimenduak publikoarentzat zabalik baldin badaude.

Hobaria onartzeko beharrezkoa izango da Ekonomia Jardueren gaineko Zergan altan emanda egotearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea hobari eskariarekin batera.

g.- Zerga kuotaren %60ko hobaria eguzki-energiaren bidez beroa edo elektrizitatea sortzeko sistemak instalatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea.

Hobari hau bakarrik aplikatuko zaie eguzki-energia aprobetxatzeko sistemarako erabiltzen diren diru kopuruei, baldin eta inbertsio hori egitea ez bada nahitaezkoa indarrean dagoen legediaren arabera.

h.- Zerga kuotaren % 30eko hobaria izango dute gizarte-inguruabar historiko- artistiko bereziak direla- eta, edo enplegua zein ostatu igarokorra sustatu beharra dela- eta, interes berezikotzat edo udalerriaren onurakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obrek.

Frogarako datu zehatzak aurkeztu beharko ditu interesdunak eta udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hobari eskubidearen deklarazioa egitea.

2.- Aurreko ataletan agertzen diren hobari fiskalak ezin dira metatu, ezta batera aplikatu ere.

3.- Aurreko ataleko hobariak zuzenean aplikatuko dira behin-behineko kitapenean, beti ere hobariaren eskaria obraren lizentziaren eskarian edo aurre- komunikazioaren eskabidean beren beregi jasotzen bada.

Behin-behineko kitapena egin aurretik, kasuan kasuko agiri guztiekin hobariak eskatzen ez badira, baina geroago hobaria aplikatzeko eskaria aurkezten bada, obra amaitu eta gero aplikatuko da hobaria. Azken kostua aurkeztuta, zergaren behin-betiko likidazioa edo likidazio osagarria egiten denean, edo dagokion itzulketa egiten denean aplikatuko da.

VII- SORTZAPENA

10. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra hastean sortuko da zerga, lizentzia jaso ez bada ere.

VIII- KUDEAKETA

11. artikulua

Lizentzia ematen denean edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazioa aurkezten direnean, edota, lizentzia, aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ez bada ere instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko kitapena egingo da, eta horrela finkatuko da zerga oinarria:

- a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, aurrekontu horrek elkargo ofizialaren ikus-onetsia badauka, horrela egitea arauzko eskakizuna denean.
- b) Udal teknikariek proiektuaren inguruan kalkulaturako kostuaren arabera.

12. artikulua

Lizentzia eman eta gero, edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren hasierako proiektua aldatuko balitz, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin behineko kitapen berria egiteko, aldatutako aurrekontuak jatorrizkoa zenbateraino gainditzen duen kontuan hartuta.

13. artikulua

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra behin amaitutakoan, eta haren benetako kostua kontuan hartuta, udal administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ostean, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatu eta behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainarazi edo itzuliko dio.

2.- Aurreko atalean ezarri denaren ondorioetarako, obra amaitu edo behin behinean jaso eta hurrengo hilabeteen, inguruabar horren aitortpena aurkeztuko du zergadunak. Obra zuzendu duen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, haren Lanbide Elkargoak ikus-onetsita, beharrezkoa izan ezker. Agiri horretan obren kostu osoa ziurtatuko da.

14. artikulua

Zerga likidazio erregimenean eskatuko da orokorrean, baina autolikidazio erregimenean eskatuko da obra kasu hauetan:

- a) Obraren edo eraikuntzaren aurrekontuak 18.000 €-ko kopurua gainditzen ez badu, BEZa kontuan hartu gabe.
- b) Eraikinaren egitura eta fatxada ez badira aldatzen.
- c) Etxebizitzaren banaketarik ez bada aldatzen.

- d) Egurrezko egitura duten eraikinetan ez bada sukaldeetako eta komunetako zorua aldatzen.

15. artikulua

Zergaren likidazioari dagokionez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentzien ondorioak berariaz ematen diren lizentzienak eurak izango dira.

16. artikulua

1.- Lizentziaren titularrak edo aitorten erantzulea zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu duen zergadunak erabakitzen badu baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea, idatziz jakinarazi beharko dio udalari eta honek behin behineko likidazioa itzuliko dio, edo, bestela, osorik utzi balio barik.

2.- Lizentzia bat iraungita, udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetuko da, salbu eta titularrak lizentziaren berritzea eskatzen badu eta udalak baimena ematen badio.